

# Goibeko kale

1995eko apirila

ELGETAKO ALDIZKARIA

**PELLO ALBERDI KUADRO ARTEAN**

*Maderas Gallastegui, s.a.*

**MENDI UZTIKETA ETA SERRA MEKANIKOA**  
Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (Bizkaia) Tel. eta faxa: 6583061.

# Kartak

*Goibekokalek* izan duen arrerak, lanean jarraitzera animatzen gaitu. Hala eta guztiz, arazo batzuk izan ditugu oraingo zenbakian ere hasi berriak baikarlan honetan.

Eskuartean duzen zenbakirako eta hauteskondeak direla aitzakitza hartuta aurreko legealdian zinegotziren bat lortu zuten alderdiekin elkarrizketa bat egitea erabaki genuen.

Elkarrizketa hau galdera orokor batzuen bidez egitea geneukan pentsatuta. Bi zerrenda buruei galdera berak zortzi minutu aurretik eman eta ondoren erantzunak grabagailuan jaso-tzeko.

Honen zergaitia gure alkategaien bapatekotasuna lortzea zen. Bi hautagaiek idatziz egitea proposatu ziguten baina guk nahiago izan genuen aurretik erabakitakoari eustea (Propaganda etxera beraiek bidaliko digutelako).

Xabier Ezpeletak guk proposaturikoa egin zuen. Jarraian udaletxera jo genuen berdina egiteko asmoz baina Patxi Basaurik uko egin zion gure elkarrizketa moduari. Nahiago izan genuen beraz lehendik pentsatuta geneukan elkarrizketa bat egitea, gure asmoak bertan behera utziz.

Pello Alberdiri egindako elkarrizketa hurrengo zenbakirako geneukan pentsatuta, baina aurrerago irakurriko duzuen bezala oraingo alean ipini behar izan dugu.

## Falta zaiguna

Euskeraz bizitzeak merezi du, eta ez gara konformatu behar jakitearekin, erabili egin behar dugu.

Horregaitik uste dut aurrerapauso garrantzitsua dela Elgeta baten *Goibekokale* edukitzea.

Beste leku batzutan antzeko aldizkariak badaude, baina danak (edo gehienak) euskera elkarten eraginei esker sortuak izan dira. Beste herri horietan elkarte hoiak euskararen egoera dela eta, hasi ziren lanean, eta horren ekintzen artean aldizkariak atera zituzten (AED-Arrasate Press, Jardun-Berrigara, Barbaro-Eraz).


Elgetan berriz, aldizkaria badaukagu, baina euskararen aldeko talderik ez, eta zeregina badago. Egia da euskaldun kopurua gora doala, baina A. Telleriak *Goibekokale* 0 zenbakian aipatzen zuen bezela, kalitate eta erabilpena jaisten doaz, eta nere ustez esparru bi hauetan lana egin dezakegu gogo baldin badaukagu. Horretarako ezinbestekoa iruditzen zait Elgetan ere horrelako talde batsortzea eta kontuan hartuz gero, udaletxeak ez duela erakutsi orainarte benetako borondaterik hasteko bere buruarekin. Zaila da udaletxetik kalera begira, euskara dela eta ezer gutxi itxarotea nik behintzat epe motzera ez dut espero, gauzak dauden moduan daudelako.

Euskera elkarte hori irekia eta zabala izan beharko litzateke, hau da, inoren menpean ez legokeena. Euskara maitatzea da batu ahal gaituen faktore garrantzitsuenetariko bat. Euskara helburu, euskaraz (ganoraz) bizitzeak merezi duelako, lana egin beharko genuke elkarrekin.

Ni prest nauzue!

Xabier Ezpeleta

## KEZKA




## KEZKA

Zer gertatzen da iturri honetako urarekin?

Bateronbatek baleki gustatuko litzaidake erantzuna hurrengo alean argitaratzea.

"Sikutia"

Argitarapen honen edizioko laguntzailea



kutxa fundazioa

## ZURE ESKUTITZEN ZAIN GAUDE!

Atal hau zuen eskutitzen zain dago. Bertan kezka, iritzi, galdera, etab. adierazteko aukera duzue. Eskutitzak izena, bi abizen, telefono zenbakia eta NAN zenbakia izan beharko ditu derrigorrez. Gero argitaratzerakoan, eskutitzaren egileak hala eskatuko balu, inicialak edo gaitzizena agertuko dira. Eskutitzen luzera ez da inoiz orrialde erdi makinaz, 15-18 lerro baino luzeagoa izango. Bidali sobrean *Goibekokale* ipinita.

## GOIBEKOKALE

itaratzailea: *Goibekokale* aldizkaria. Gudarien Bidea 2. Elgeta 20690. Laguntza berezia: Elgetako Gazte Asanblada eta Ozarte. Koordinatzailea: Ana Gillegi. Erredakzio kontseilua: Iban Aranzabal, Gaizka Bolinaga, Haritz Gallastegi, Ana Gillegi or Gallastegi. Erredaktoreak: Oxel Erostarbe, Gorka Arizmendiarieta, Juan Ramon Irazabal. Maketazioa: Bittor Gallastegi. Arduraduna: Iban Aranzabal. Argazkien erregelazioa: Txuri-Beltz argazkizale taldea. Komikia: Igor Arizmendiarieta. Irroskopoa: Aitor Ubera. Ale honetako kolaboratzaileak: Enrike Gorrotxategi, Alberto Telleria eta M<sup>a</sup> Elena Ester. Ministrazioa: Esti Retolaza, Susana eta Olaia Jimenez. Banaketa: Ikastola. Tirada: 400 ale. Inprimategia: GERTU koop. (Zubi-iti). Copyright-a: *Goibekokale*. Lege-Gordailua: SS-475/95

*Goibekokalek* ez du bere gain hartzen, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



## SANTU BERRIA

**G**u ez gara gutxiago izango eta Bergaran San Martin badute eta Elorrixon Berriotxoako San Balentin, guk ere badugu santu berri bat. Ez dut esango santuzalea naizenik, ez beintzat erreztatze aldetik, santuen izenean egiten diren jaien aldetik bai ordea. Baina orain behintzat, badugu herrian santu bat.

Honez gero pentsatzen hasita egongo zarete ze santu izan daitekeen. Noiz jaioko ote zen? Zein egunetan agertuko ote da kalendarioxoan? Nor izango ote da? Eta fedegabekoentzako garrantzitsuagoa dena, noiz ospatuko dugu haren omenezko festa?

Pista txiki bezala, jakin ezazue hil honetan, maiatzean, izango dela "santu" horren eguna. Datu bitxi bezala esan behar da Aita Santuak ez duela zer ikusirik izan santu egite horrekin. Santu batentzat hain garrantzizkoak diren, eta bere maila erakusten duten miraririk ere ez baitu egin, ezta egingo ere.

Erroman ez dute egin santu, hemen bertan gertatu da hori eta santu izendatu dutenek ez dirudi oso katolikoak direnik. Izan ere, eta gauzak argitzen joan gaitezenez, ez da inoiz santua izan, ezta izango ere. Orduan, ez ote daukagu santurik? Sentitzen dut, baina ez, ez dugu.

Ez dakit irakurri duzuen Asentzion *Diputapena*(k) jarritako seinalea: SAN ASENTSIOKO ATSEDENLEKUA. Esan dezagun Asentzio "Ascension" hitzetik datorrela eta ez "Asensio" tik eta zerura igotze hori ezin dela santu izan, San Jaiotze edo San Berpizkunde ez dagoen bezala.

Beraz, dagokionak badaki zer egin behar duen: okerrak zuzendu. Besterik ez bada ere spray edo pintura pixka batekin.

Asentziara uda aldean etortzen diren kanpotarrek zer erantzungo ote dute non egon zarete galdetutakoan? San Asentzion erantzungo al dute seinalea irakurri ondoren?

Enrike Gorrotxategi



## ZER DELA ETA?

**O**raingoan niri tokatu zait zertxobait idaztea, eta egia esan, oso erraza da hainbat lerro betetzea liburutegiko mugimenduarekin; hau da, zenbat liburu dauden, zein motatakoak diren, zenbatek eramaten dituzten etxera eta abar luze bat, baina hauek denak beste egun baterako utziko ditut, izan ere orain aipatu behar dudana arazoa erabat kezkatutik nauka.


Zer dela eta? Da izenburua eta hori da benetan nik galdetzen dudana. Orain arte, eta badira ia-ia zortzi urte Kultur-Etxea zabaldu zela, nahiko ondo kontserbatzen ari zela ikusten genuen; jakina, ez zegoen hasiran bezala, barruko koloreak oso argiak dira eta, bai paretak, bai zorua, baina kontutan harturik eraikin publikoa dela eta pertsona askok erabiltzen dutela, bada lehen aipatutako hori, nahiko txukun ikusten zen, baina... eta hemen nere kezka, azken aldiko hilabete hauetan ez dakit zer gertatzen ari den, ematen du Elgetako talde, edo agian bakarren bat, erabat aztoratu egin dela.

Gainera, ez da (dira) asetzen, nonbait paretak margotzearekin, eskaileretan dauden entxufe eta argiak piztekoak apurtu egin ditu (dituzte), eta malizia guztiarekin gainera. Ostikoz jota. Horregaitik nere galdera. Zer dela eta? Zer lortzen du(dute) honelako "hazañekin".

Aurreko urteetan Donostian izandako zenbait bileratan beti esan izan dut Elgetako gazteak nahiko formalak izan direla eta liburuak eta Kultur-Etxea bera errespetatu dituztela, eta oso harro sentitzen nintzen. Eta orain zer? Zer dela eta aldatu behar dut nere ustea? Zergaitik jarrera hori? DENEN ONERAKO, MESEDEZ, ALDATU OHITURA TXAR HORIEK.

Mª Elena Eztenaga

## KOMIKIA



**UDALETXETIK**

## Familia ugarien agiria

Aurten, onartu berri da, 3 seme-alaba edo gehiago dituzten familiak, famili ugari-dun edo "familia numerosa" kontsideratzea. Horretarako, udaletxera jo beharko da, agiri hau eskatzeko orria lortzera. Bete beharreko baldintzak hauek dira:

1. Familiaren bi argazki.
2. 21-25 urte bitarteko seme-alaben, ikasketen, langabezi edota soldaduzkaren ziurtagiria.
3. Eskaera egiten duen familiako kideren batek minusbalitasunen bat duela adierazten

bada, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzu Departamentuko Oinarrizko Zentroak egindako minusbalitasun ziurtagiria.

4. Senar-emazteen banaketa edo dibortzioaren agiria, egoera hori adierazten denean.

5. Familia liburua.
6. Gurasoen NAN.

Onurak, alor askotan emango dira eta 3 kategoria ezberdinetan. Kategoria ezberdinen arabera, onurak ere ezberdinak gertatzen dira. Alor askotan aplikatuko

dira abantaila hauek: Gizarte Segurantzaren, Hezkuntzaren, Garraioetan, Etxebizitzaren, Egoi-tzetan, Osasun Arloan, Abantaila Fiskaletan eta Berma Laboraletan.

### Ibilgailuen udal zerga

Udaletxetik adierazi nahi da, ibilgailuen zerga honen borondatezko ordainketa, apirilaren 18tik maiatzaren 31 bitartean egiteko aukera dagoela. 443 autok ordaindu beharko dute zerga eta guztira 4.229.635 pta jasoko ditu udal-etteak.

## Elgetarrek 32 milioi parrokiako obretarako

Urtero bezala, Elgetako parrokiak, bere kontuen eguneratzea burutu du eta 1.500 ptako galera izan du pasadan urtean.

Azken urteotan hainbat berriztapen eta konponketa lan egin dira. Gaur egun, lanen 2.fasean aurkitzen dira. Teilatua eta korua konponduta gelditu ziren lehen fasean. 2. fasean, sakristia eta instalazio elektrikoaren zati nagusi-ena amaitu dute; Artekaleko horma garbitzea eta ekainerako eliza barrutik margotzea baino ez dira gelditzen fase honi amaiera emateko. Azken ekinaldian, Diputazioaren %70ren laguntzaz, hiru aldare eta erretablo nagusiak konpontzea espero da.

Aipaturiko lanez gain, 1989tik hona, komuna, kaper txikia eta berogailuaren arazoak konpondu dira. Azken bost urteen balantzea ere egin dute eta aipaga-


rriena beraien iritziz, herritarren laguntza izan da.

Herritarrek eman duten diruari esker, 32.827.780 pta bildu dira. Hauetatik 15.966.220 pta itzuli egin behar zaizkie bonoen bidez lagundu duten pertsoneri; dagoeneko hasi dira lan honetan eta 4.425.000 pta bueltatu dituzte. Gainontzeko 16.861.560 pta mezatan bildu edo donatibo bidez jasoak dira.

Erakunde publikoek eta Gotzaitegiak era honetara lagundu dute parrokiaren mantenuan: Gipuzkoako Foru Aldundiak 17 milioi, Gotzaitegiak 2,5 milioi, Elgetako Udaletxeak milioi bat eta Kutxa fundazioak 150.000 pta.

Guztira beraz, 53.477.780 pta lortu dira berritze eta konponketa lanetarako. 36.330.611 pta

gastatu dira eta momentu honetan, 12.729.169 pta gelditzen dira.



Barrutik konpontzean dago eliza.

**ER  
HARATEGIA  
ASTI**

San Roke 6  
Tel: 768168.

**ALDI DENDA**  
(GRUPO IFA)

IGANDE GOIZETAN ERE ZABALIK: 9-12.  
Andra Mari Plaza 2. Tel: 76 80 98.

**M<sup>a</sup> Karmen  
Lenzeria**

Lenzeria eta  
kosmetika gaiak.

Salbador zeharbidea.  
Tel: 78 90 40



## Ireki berri da "Elgeta Hotela"

"Elgeta Hotela" k , apirilaren 8an zabaldu zituen bere ateak. Ikusmina haundia zenez, arratsalde hortan jende ugari hurbildu zen. Ikuskizunak eta musika eskeintzeaz gain, nahi zuenak, hotela goitik behera miatzeko aukera aparta izan zuen.

6 logela, egongela, taberna eta bi jantoki 50 pertsonentzat, daude aukeran. Lau metro t'erdiko zabalera duen etxe batek, diseinu aldetik burukomin asko emango zituela uste bazen ere, Anasagasti, Bilboko arkitektu batek, "lan oso ona" burutu du, eta "ondo Aprobetxatu ditu" n? guztiak, jabeen ustetan.

Rosa Mari Boehm eta Elena Zabala dira, hotelaren proiektua aurrera atera duten bi emakumeak. Bi etxe begiratu zituzten Elgetan, azkenik aukera guztiak esku artean, San Roke 28 an eraikitzea erabaki zuten.

Lau hilabeteren buruan jasotzea zen lehen proiektua, urtarrilerako irekia izanik; baina sei hilabete behar izan dituzte azkenik eraikuntza bukatu, apaindu eta irekitzeko.

### "Toki polita da oso"

"Toki lasai eta atsegina" izatea nahi dute. Era guztietako bisitariak espero dituzte, gau batetik, astebete edo hamabostaldi bat pasako dituztenetaraino. Elgetan enpresa asko egonik empresariak hurbilduko zaizkiela uste dute. Lo patxadaz egiteaz gain, betiko eta inguruko jakiak eskeiniko dituzte; hala ere, norbaitek zerbait berezia jaterik nahiko balu karta eska dezake. Gainera , Elgetako hainbat jatetxek bezala, eguneko menua eskeiniko dute.

Rosa Mari eta Elenarekin batera, beste bi pertsona ari dira lanean, eta dagoeneko, martxa bizian dihardute: "Afari zein bazkari ugari ari gara ematen orain eta lo egiteko jendea gauero hurbiltzen da, beraz laurok gelditu gabe gabiltza".

Herriko arrera "oso ona" izan dela adierazi zuten eta kanpotik erantzun berdina espero dute, batipat kontutan hartzen badugu, Elgeta oso toki onean kokatua dagoela.

## Salbador jaietako kiniela

Boteak sekula izan duen dirutza handiena izan badu ere, hilaren 9a eta gero berriz hutsean gelditu da. Honen "errudunak" Felix Sarasketa eta Fernando Olaortua izan dira, Kinielako boletoa elkar-rekin egin ondoren 156.150ptako diru saria jaso baitute.

Lagunarteko afari batez ospatu dute beraien sortea eta beste parrandaren bat egiteko dirua ere gelditu zaie.

Gainontzekook, futboleko liga amaitu arte Salbador jaien aldeko kiniela jokatzen jarraitzeko aukera izango dugu Haizea eta Patxi tabernetan.

## Erradiografiak umeak salbatzeko.

Elgetako farmazian, Sanofi eta Mugarik Gabeko farmazialariakoekin batera, erradiografia zaharrak jasotzen ari dira. Erradiografiak duten zilarra berreskuratu egiten da kutsakorra ez den prozesu baten bidez. Gero, lortutako diruarekin Hirugarren munduan egiten ari diren programak finantzitzen dira, batez ere uraren klorazioa eta tratamendua helburu dutenak.

Lagundu nahi izanez gero orain duzu aukera.

## Asentzio eguna

Aitzinako ohiturak berreskuratu asmoz Asentzio eguna ospatzea pentsatu du EGAK hilaren 28an. Meza ostean zabalduko den tabernan salda eta txorizoa egongo dira. Honetaz gain txalapartariak, dantzariak, haurrentzako arrain txapelketa, erromeria eta bolo txapelketa egongo dira.

## Goio Sarasua

Igeltzeritza lanak

Teilatuak  
Etxaurreak

Sukaldeak  
Komunak

Otzango Behekoa Baserria. Tel: 860156

VIVO  
JANARI DENDA

M<sup>a</sup> JESUS  
ARRAZOLA

Tel: 76 81 31

IBAIBARRIAGA

GARRAIOAK

E.Ibaibarriaga  
Tel: 768072  
Salbador zeharbidea 2  
ELGETA

## Botatu bihar dozu? Badaukazu konfiantzarik politikan?



**Mª Jesus Mujika  
Tabernarixa  
(31 urte)**

Bai. Ez, asko ez, bakotxak nahi dabena eitten dabelako.



**Igor Irazabal  
Ikaslia  
(22 urte)**

Bai. Askorik ez; aurretik asko prometitzen dabe, eta gero boteria hartzen dabengan, danak berdin.



**Bixente Zenitagoia  
Jubilaua (70 urte)**

Igual bai, datorren hilian ikusiko dot. Ez dot entenditzen. Politiko danak lapurrak direlako. Politikoak horra aurrera ailegatzia gura dabe lapurretan eitteko. Oin be ikusi dogu ze ein daben.



**Miren Atxotegi  
Bihargiña (28 urte)**

Bai. Ez asko, azken fiñean euren helburua gora ailegatzia da. Agindu agindu eitten dabe, baina bakotxak bere interesenatik eitten dabe eitten dabena. Botau egin bihar da




**Marisol Alberdi  
Etxeko andria(45 urte)**

Baietz pentzatzen dot. Ez bapez, desilusionatuta gaobelako politikarekin, bueno baina aiuntamientoko gauzetan Elgetak ondo funtzionatzen dau.



**Oskar Andrés  
Bihargiña  
(19 urte)**

Ez. Oin artean ez dabe ein ezebez eta horregaittik ez dot botau bihar.



**METALEN  
SALEROSKETA**

ANDONI BOLINAGA

Salbador 7  
Telf-Faxa: 768064 Elgeta

**PANADEROKUA TABERNA**

CONCHI IDIGORAS  
LARUNBATA ETA IGANDETAN  
BERTAKO BABARRUNAK  
SAIHESKIA ERRETA

ELGETA

TEL. 76 82 73

## ELGETA:

- Maiatzaren 6an: Saltsa ikastaroa hasiko da. Oraindik izena emateko aukera duzue hilaren 3a baino lehen udaletxean.  
 - Maitzaren 14an ertzentzaren banda. Udaletxeak antolatuta.  
 - Hilak 14 EGAK antolatuta Herri Urratserako autobusa. Izena eman Hai-zean 11 baino lehen.  
 - Maiatzak 28 Asentsio eguna. Txalapartariak, bola jokua, erromeria... EGAK antolatuta.

## BERGARA:

- Herri Urratsera lanera joateko deitu Jardun elkartera. 760819.  
 - Taila ikastaroa apuntatu Jardun elkar-tean.

## EIBAR:

- Maiatzaren 6tik 27ra Euskal jaia: Mahai inguruak, bertso afaria...  
 Maiatzak 26: Hiru Truku. 22.30etan Unibertsitate laboralean.

## ELORRIO: Arriola kultur aretoan

- Maiatzak 5: Musika Ipar Rap Eroak 23etan.  
 -Maiatzak 12: Antzerkia. Errenta Bederen 1 taldearekin, 22.30etan.  
 -Maiatzak 19: Musika Urdingrass 23etan.  
 -Maiatzak 26: Antzerkia. "Herminio y Miguelito" 20etan eta 22.30etan.



## ASIER OSORO

Bihargina

**Zer moduz Mallorca aldian?** Hasieran ondo, baina gero hanketatik gaizki ibili nintzuan.

**Nun ligatzen dok errezago?** Ligau alde guztietan antzera, bokabularixo fiña euki ezker

**Neska batian zer gustatzen jatak gehixen?** Lehenengo ikusian, danon antzera, itxuriak, eta gero, tratuan, patxadazkoa eta noblia izatia.  
**Eta gutxien?** Gutxien harrokerixia.

**Piropo bat?** Erderaz esango duat: "estas mas buena que un jamon en la guerra civil".

**Gustokua duan zabore bat?** Platanua. **Usein bat?** Cacharel.

**Kolore bat?** Zurixa. **Soiñu bat?** Kotxe zaratia.

**Ukimen bat?** Emakume baten gorputza.

**Urteko hilabeterik onena?** Agostua. **Zergaittik?** Oporrak jakazat.

**Zer esango heuskio intsumiso bati?** Aurrera.

**Musa ala tutia?** Musa, gizonen jokua dok eta.

**Enbido ala hordago?** Hordago. **Eta bizimoduan?** Hordago.

**Bota gizur bat?** 60 kilo jakat. **Zenbat dakak?** 95 kilo.

**Ze moduz bizi haiz?** Oiñ momentuan ondo.

**Zer eskatuko heuskio etorkizunari?** Oiñ moduan tratatzeko.

**Bizitzeko lana biharrezkoa dok?** Ondo bizitzeko bai, bizizeko dirua bihar dok.

**Definitu lau-bost berbakin:**

**POLITIKA:** Engañu bat. Geure artian ez gazela konpontzen eta kanpotarrak jaten dabizela dana.

**GOZIA:** Ebitatu leikien gauzia dok.

**ERLIJIÑUA:** Gizonak ein daben inbentorik onena personei burua jateko.

**Basarrixa ala kalia?** Basarrixa kotxiakin.

**Erateko?** Whiskixa.

**Entzuteko?** Ez jakat preferentziarik, gorputzaldixaren gorabeheria izaten dok.

## Horroroskopoa

<b>Aries:</b> Hainbeste tardatzen bok trenak be ospa eingo dua.	<b>Taurus:</b> Problemei letxe, zezenai adarretatik ebatu.	<b>Geminis:</b> Elixan ordu estrak sartzeak ez jok merezi, etxuek pagatzen eta!	<b>Cancer:</b> Zelaixan etzinda hagonian ez jatak antzik emoten, zergaittik ete da?
<b>Leo:</b> Ezik hainbeste pentzau eta heldu, hiretako modukua dot eta!	<b>Virgo:</b> Pelukerixatik pasau eta oiñ griñak mobitzen? Berandu ez ete da?	<b>Libra:</b> Sua eta garra... Berotuta habillen seiñalia?	<b>Escorpio:</b> Biharra sobran eta zuek Mallorcara bakaziñotara.
<b>Sagitaris:</b> Ondiok tripako miñak? Medikuaresan gaittik behera jarraitu bihar die.	<b>Capricornius:</b> Hotelera juan aurretik errezerbau gelia.	<b>Acuarius:</b> Noizian behin izardixa ateratziak eztau kalteik eitten.	<b>Piscis:</b> Pistinara salto eiñ aurretik begiratu urik dagon.

## ANA LIBURUDENDA

LIBURUAK  
 JOSTAILUAK  
 ALDIZKARIAK  
 ESKOLARAKO TRESNAK  
 Salvador kalea 1, Tel: 76 80 78 Elgeta

## HAIZZEA TABERNA

Salvador 5 Tel: 768256 ELGETA

## Pello Alberdi: "Heziketan hutsune bat nabari da arteari dagokionean"

Pello Alberdik txikitatik izan du pintatzeko zaletasuna. Gaur egun berriz, hainbat galeriatan erakutsi ditu bere lanak. Ez du gai zehatzik lantzen Elgetar honek eta umiltasunez diozku bera eskutuan eta ahal den bezela bizi direnen artean kokatzen duela bere burua.

- Nondik datorkizu margotzeko zaletasun hau?

Batetik, pixkat berezkoa dela esango nuke, txikitan gauzak egin eta margotzea gustoko nuen. Bestetik, Bartzelonan bi urte egin nituen, eta soldaduzka egiteaz bat utzi egin nuen. Hortik aurrera nere kontura jarraitu dut ikasten eta lanean.

- Zein estilorekin identifikatzen duzu zure lana?

Hainbeste estilo daude. Estilo guztiak daude klasifikaturik liburuetan, baina 60ko hamar-kadatik hona, denak nahasturik daude. Orduan nere estiloa ez dakit non sartu; minimalismoaren ikutu batzuk ditu eta besteren batena ere bai.


- Estilo baten etiketaturik sentitzea gustatzen zaizu?

Merkatuan saltzeko beharrezkoa da, pintura eta artea merkaturia baitira eta mundu horretan etiketatzen gaituzten arren, gero horrek ez du eraginik nere lanean.

- Elgetan egin dituzun erakusketetan nolako arrera izan duzu?

Beste tokietan modukoa jendeari ez zaio normalean pintura interesatzen; arraroa bada edo erraz ulertzen ez badu, ez zaio gustatzen. Jendeak futbola eta horrelakoak nahiago ditu. Euskal Herritik kanpo ere, hemengo antzera gertatzen da. Hiri handietan akaso jende gehiago mugituko da. Munduan ere antzekoa da artearekiko interesa; norbere lana eta telebista anaiago izaten ditugu, museo eta galeriak baino.

- Zure pintura edonork



Pello Alberdi bere azkenengo arte lanarekin.

ulertzekoa al da?

Nere ustez bai. Ni ez naiz beste pertsonak baino burutsuagoa; artistak beste gaitasun batzuk desarroilatzen dituela eta mundu fikizio bat egiten duela gertatzen da; hor plasmatzen ditu gero bere bizi-penak. Jendeak ez du normalean era honetako gauzetan dirurik gatzatzen, lana, txikiteoa... eta horrelako gauzak nahiago ditu. Era honetan ez dituzte gaitasun asko desarroilatzen. Ondorioz, artistaren mundua eta gai-nontzekoena ezberdinak bihurtzen dira. Gainera, heziketan hutsune bat dago arteari dagokionean behintzat; zera gertatzen da orduan, gauza desberdin baten aurrean ez dugula pentsatzen eta okerragoa dena, ez gara ulertzen saiatzen.

- Atzerrian izan al duzu esperientziarik?

Duela urte asko Bruselan izan nintzen, euskal etxe baten

erakusten. Madrilen ere erakutsi ditut nere lanak eta pasadan urtean Japonenera bidali genituen zenbait lan.

- Japonen zer?

Esperientzia ona izan zen. Koadroak hemendik ateratzeko aukera aparta zelako. Jende ezberdin askok ikus dezake eta honi esker, lanak mugitzeko posibilitatea duzu. Bestetik

gu ez ginen han izan eta ez ginen askotaz enteratu; ez gara jendearekin egon edo ez dugu behintzat zuzenean esperientziaz gozatu.

- Koadro asko

saltzen al dituzu?

Urtean bost saltzea asko da. Orain ez da askorik saltzen. jende arruntarentzat agian, garestia gerta daiteke. Baina kontutan izan behar da, lan hauek ez direla berriz errepikatuko, balio bat ematen diezu eta ahalegin handia suposatzen dute. Hau horrela izanik, gure lanak ez dira garestiak,

**Arraroa bada edo erraz ulertzen ez badu jendeari ez zaio gustatzen nahiago ditu futbola eta horrelakoak.**





Pello Alberdi elkarrizketako momentu batean.

30.000 ptatik, 300.000 ptara.

**- Ba al duzu salduko ez zenukeen margorik?**

Ez. Piskat galdua dut dagoeneko erromantizismoa. 18 urte nitueneko koadro eta margoak baditut baztertuta, baina norbait erosteko prest balego, salduko nituzke. Azken finean merkatu bat da, eta lanak atera egin behar dira. Berekoa da, norberarentzat gordetzea, erakusteko egin baitira.

**- Ezagutzen al dute zure lana?**

Anbito batzu-tan bai. Kritikak en-tzun eta irakurri izan ditut nere lanari buruz. Baina erreko-nozimendua lortzeko, goian egon behar duzu, galeri eta merkatuetan gu baino gehiago sartuta.

Arazoa da, jende asko gaudela mundu honetan eta pixka bat ahaztuta gaude.

**- Erakusketarik garrantzitsuena?**

1992. urtean Madrilen bakarka egin nuena. Nahiko ondo joan zen dena, baina harrezkero ez da ezer gertatu. Orain berriz ere sartzea oso zaila da. Oraingo egoera ez da batere ona, ez dugu aukera handirik, eta batetik bestera gabilta erakusketa non egin dezakegun galdetuz. Askok mugitu eta borrokatu beharra dago, eta mugitzeko aukera gutxi ditugu. Zirkuitoetan sartzea zaila da; urteetan ari gara toki berdinetara joaten eta ezer ez. Bakarrik Bergarako Kultur Etxean;

gainontzekotan, kalendarioak eginak daudela esaten digute. Orain, Asteasuko jatetxe baten erakusten ari naiz; ez dut gustoko horrelako gauzetan aritzea, baina ez dago erremediorik.

**- Artistak eta artistak...**

Goian dozena bat edo daude, koadroak saltzen dituztenak. Gero gu "Cajón desastre"-an jende pilo gaude, ezkutuan eta ahal den bezala. Orokorrean beste lan bat behar izaten dugu, oso gutxi dira beraien lanetik bizi diren artistak. Artista ezagu-nenek ere lan egiten dute. Margolariak indibidualistak gara. Elkartetan

**Artistak mundu fiktizio bat sortzen du.**

biltzen gara, baina margolari denak, elkarte bakar baten biltzea ezinezkoa da. Lantoki honetan biltzen garenok,

ondo konpontzen garen arren, bakoitzak bere bizimodua egiten du; baina, elkarrekin lan egin beharra dago, erakusketetara eta joateko.

**- Nolako eraginak izan dituzu?**

Gaztetan, inpresionismoa, beranduago kubismoa, abstrakzio ameri-karra eta pop-a. Orain aldiz, minimalismoak. Estilo honek ez du ezer, adibidez plantxa batzu hutsik, koadro batzu kolore batean edo bitan. Hau da, minimoa egitea. Ameriketan sortu zen, berau, abstrakzio geometrikotik, minimalismora pasatu zen.

**- Artistarik onenak?**

Artista onez eta txarrez

hitzegitea zaila da. Picasso eta hauek, artista haundiak ziren, baina asko oso onak izanda ere ahaztuta gelditu dira. Lucio Muñoz, Gordillo... asko gustatzen zaizkit. Mila-miloi ordaintzea koadro bategatik adar jotze hutsa da; horrek ez du artistaren errekonozimendua erekin zerikusirik.

**- Nolako gaiak erabiltzen dituzu?**

Nik erabiltzen ditudanak, ez dira gaiak; abstraktoa da, gai gabe ibiltzen naiz. Fotokopiak moztuz egiten dut azkenaldian lan. Ez dut gairik, irtetzen dena.



I  
L  
E  
A  
P  
A  
I  
N  
D  
E  
G  
I  
A

M<sup>a</sup> ESTHER

Tel: 76 81 67

P  
A  
T  
X  
I

T  
A  
B  
E  
R  
N  
A

Salvador 3  
Tel: 768093

Fernando  
Ojanguren  
—  
M<sup>a</sup> Jesus  
Mujika

## MIKEL POTOLOA

Behin baten, Mikel deitzen zen mutiko bat herri txiki batean bizi zen. Oso potoloa zen eta zazpi urte zituen. Egunero oso triste zegoen ikastolako lagunek izeka egiten ziotelako eta bere amari esan zion beti saunara joango zela.


Hortik egun batzutara bere amak Mikel ez zela argaltzen ikustean, espezialista bati deitu zion ia horrela Mikel flakatzea lortzen zuen ikusteko.

Hurrengo egunean espezialista etorri zenean, ez zuen lortu Mikel flakatzea.

Ikastolan zegoenean lagunek bultza egin eta lurretik bueltaka botatzen zuten. Kirola egiten zuenean bizkor gorritzen zen eta ezin izaten zuen jarraitu. Egun batean bide estu batetik zioala bere aurretik lapur bat zetorkion eta lapurraren atzetik polizia. Mikel ez zen mugitu eta lapurrak Mikelen tripan errebotatu zuen eta poliziak lapurra harrapatu zuen.

Lapur hori oso peligrrosoa zen. Poliziak bost urte zebiltzaten bere atzetik. Poliziak domina bat eman zioten eta leku guztietan agertu zen: telebistan, periodikoan...

Hurrengo egunean Mikeli ez zioten izeka egiten eta berak nahi zuena egiten zuen lagunekin. Mikel orduan triste jarri zen, baina pozik bizi izan zen hortik aurrera.



Marrazkiak: Xabi eta Aritz.



## GRONDO

elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola, 26. Kataide industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa.

Tel: 797815/771042 Faxe: 771476 ARRASATE.

Publizitatea

76.81.93.

Deitu goizez

# DENBORAPASA

A	K	R	S	L	A	Z	P	I	K	O	A	S	P
E	M	K	O	N	E	J	O	A	M	I	M	A	H
M	E	G	A	Z	T	A	I	A	E	L	E	Z	N
K	P	T	R	R	T	T	P	S	N	A	N	E	T
R	S	P	R	S	R	X	G	O	E	S	E	N	L
T	O	M	A	T	E	A	O	E	S	K	S	A	O
A	T	S	E	N	E	M	I	R	R	O	T	R	P
I	T	E	O	S	M	R	R	N	I	A	R	I	Z
P	N	N	L	E	T	X	U	G	A	Z	A	O	E
U	P	A	T	A	T	A	U	O	E	P	O	A	O
E	A	R	R	A	U	L	T	Z	A	S	T	A	S

Egilea Jokin Aranzabal

## HIZKI SOPA JANARIAK

Hizki sopa honetan hamaika janari mota aurkituko dituzue. Zortziren izenak guk emango dizkizuegu eta beste hirurenak zuek aurkitu beharko dituzue:

Zortzi janariak:

Arraina  
Letxuga  
Tomatea  
Gaztaia  
Konejoa  
Oilaskoa  
Azenarioa  
Menestra



## LEHIAKETA

Makinatxo bat karta jaso ditugu edade ezberdinetako jendeak bidalita, baina **Saioa Belarrek** jaso du Gazte Asanbladaren kamiseta. Erretratuan zegoen pertsonaia Begoña Mujika andereñoa zen, hainbat urtetan Elgetan irakasle izandakoa eta gaur egun Bergarako institutuan diharduena.

Oraingo hilabetearen erretratuko lekuaren izena zein den asmatu beharko da. Bete azpian eskatzen zaizkizun datuak eta bidali sobrea *Goibekokale* izena ipinita. Kamiseta zure zain dago.

Izena eta abizena: \_\_\_\_\_  
Erantzuna: \_\_\_\_\_  
Bizilekua eta telefonoa: \_\_\_\_\_

## FUTBITO: ERABAKITA NORTZUK JOKATUKO DITUZTEN FINALERDIAK

Nahiz eta oraindik ihardunaldi batzuk falta, erabakita dago finalerdiak nortzuk jokatu dituzten. Espero zen bezala ez da inongo sorpresarik izan eta Txapela, Urien, Heskeiak "A" eta Heskeiak "B" sailkatu dira. Orain postuak zehaztea bakarrik falta da.

Aurten faborito nagusiak sailkatu badira ere inoiz baino parekatuagoa egon da txapelketa. Hala nola, lehen itzuliko partiduan Patxi Tabernak errez irabazi zuen Txapelaren aurka eta Hi Hartik Hortikek, Heskeiak "B" garaitu zuen. Aipatzekoa da baita ere Patxi Tabernako gazteak ematen ari diren itxura ona, nahiz eta ihardunaldi askotan talde osoa ekartzeko aukerarik ez izan. Horrela jarraitzen badute laister txapelketa irabazteko moduan izango dira.

Azken ihardunaldian berriz, ohizkoa den bezala, hiru partidua jokatu ziren. Ihardunaldiari Patxi Tabernak eta Heskeiak "B"-k eman zioten hasiera. Partidu honetan bitxikeri bat gertatu zen. Lehia hasi zenean bi taldeak bost pertsonaz aurkeztu ziren jokatzera (sei pertsonak jokatzeko dute) eta horrela hasi zuten partidua. Lehen zatiko erdialdera Heskeiak "B"-ko seigarren bat ere agertu zen, baina berdin jarraitzea erabaki zuten. Egoera hori oso ondo aprobetxatu zuten Patxikoek eta atsedenaldira bi goletako abantailaz heldu ziren (3-1). Bigarren zatian aldiz, Duran-garrak aulkian zuten joka-laria jokatzeko ipintzea erabaki zuten eta



Gaztiak eta Ana Marikoek partidua polita jokatu zuten azken jardunaldian.

orduan ez zuten inongo arazorik izan partidua irabazteko (3-7).

Bigarren partidua ez zuen inongo historiorik izan. Heskeiak "A" eta Zeleta Jatetxeak jokatu zuten eta hasiera-hasieratik lehenengoak errez nagusitu ziren. Azken emaitza 8 eta 2koa izan zen.

Hirugarren eta azken partidua Ana Liburudendak eta Gaztiak jokatu zuten. Partidu horren hasierarekin batera euria hasi zen eta euri jasak ez zuten atsedenek izan partidua amaitu arte. Baina euria ez zen oztopo izan partidua

polit bat ikusteko. Lehen zatian neskak izan ziren nagusi eta horrek berehala izan zuen islada markagailuan Jone eta Maitek sartutako golei esker, baina atsedenaldira heldu aurretik Ana Mariko gazteek, Aritzen gol bati esker markagailua itxuratzea lortu zuten. Bigarren zatian partidua guztiz aldatu zen eta gazteak aurrera jo zuten partidua irabazteko asmoz. Nahiz eta neskak aurkakoen jokoa baretzen saiatu, ezin izan zuten ezer egin eta partidua amaieran 4 eta 2ko emaitzaz galdu zuten.

NAGUSIAK	J	I	B	G	P
HESKEITAK "B"	8	6	1	1	13
HESKEITAK "A"	9	6	1	2	13
URIEN	9	5	1	3	11
TXAPELA	8	4	1	3	9
PATXI T.	8	2	1	5	5
H.H.H.	7	2	0	5	4
ZELETA	8	1	1	6	3

NESKAK eta GAZTEAK	J	I	B	G	P
ANA LIBU.	5	5	0	0	10
JOIXON					
BERTAN	4	1	0	3	2
GAZTIAK	5	1	0	4	2

**BILTEGI  
DENDA**

Kirol, Burdin, Menajea.  
Zugandik gertu, behar  
duzun beste.

**SALBADOR 24**  
Tel: 76 82 06

**BOLATOKI**  
**TABERNA-JATETXEA**

**Berezitasuna: Buztana.**  
Pintxo goxoak, otartekoak.

Elorrio bide z/g Elgeta. Tel: 943/768284.

**Erosle**

**M. Asun Agirre**

Salbador 26. Tel: 768190

## Euskal Herriko itzulia pasatu da

Euskal Herriko itzuliko laugarren etapa, Trapagaranen hasi eta Lekunberrin bukatzen zena, Elgetatik pasa zen. Etapa hau oso garrantzitsua zen sailkapen orokorreko postuak zehazteko, horrela bada, hasiera-hasieratik lehiarako gogoz aurkeztu ziren txirrindulari guztiak.

Elgetan, jende asko bildu zen txirrindulariei animoak emateko eta baita eman ere. Elgetatik, bosteko talde bat pasatu zen aurretik, bertan H. Diaz Zabala, Peña, Unzaga, Ozots eta Bruyneel zeuden. Ondoren 40 segundutara faboritoen pelotoia igaro zen Irusta buru zutelarik eta minutu batera pasatu zen pelotoi nagusia. Etapa amaieran Romin-ger izan zen garaile eta Zullek sailkapen orokorreko lehen postua lortu zuen, itzulia bukatu arte utzi ez zuena.

## Eibar hiriko IV. duatloia, Elgetatik

200 partaide inguru izan-go dituen Eibarko IV. duatloia, Elgetatik pasatuko da hurrengo maiatzaren 6an. Eibartik helduko dira 4: 10 inguruan eta ondoren Bergararuntz abiatuko dira. Elgetatik pasatu aurretik, Eibar barna 5 kilometrotako zirkuito bati itzuli bat eman beharko diote korrika. Elgetatik bizikletaz pasatu ondoren Eibarrera itzuliko dira eta froga amaitzeko zirkuitoari beste bira bat eman beharko diote.

## ELGETARRAK ONDO 4 T'ERDIKO TXAPELKETAN


4 t'erdiko pilota txapelketa aurrera doa piskanaka-piskanaka. Aurten partehartzaile ugari daudenez, astean lau egunetan egoten dira partidua, partaideak kaleratu eta faboritoei lehian sartzeko aukera emateko asmoz.

Elgetakoei dagokienez, esan, nahiko ondo dabiltzala. Lehenengo jokatu zuena Aranzeta izan zen, honek, Gamiloa Urduliz-tarraren aurka jokatu zuen. Ez zuen inongo arazorik izan partidua aurrera ateratzeko, hasi bezain laister hamaika tanto egin baitzikion. Azken emaitza 22-7koa izan zen. Baina hau ez da izan Eñautek jokatu duen partidu bakarra. Gamiloaren aurkako kanporaketa aurrera etara ondoren Badilloren (Alonsotegi) aurka tokatu zitzaion indarrak neurtzea. Nahiko ondo hasi zen, 8-2 eta 12-5eko abantailak izan zituen, baina Badillok erreakzionatu egin zuen eta 13na jartzea lortu zuen. Berdinketa honen ondoren Eñautek bere maila asko jeitsi zuen eta nahiz eta 20na ipintzea lortu eta irabazteko aukerak izan sakean huts egin zuen eta bertan bukatu zen partidua.

Ubera anaiak ere beraien partaidetzari eman diote hasiera. Lehian sartu zen lehena, bietatik nagusiena izan zen, Aitor. Honek Larralde Durangarraren (David Peñalber konporatu zuena) aurka neurtu zituen bere indarrak. Erraz nagusitu zen, bere aurkakoa ez baitzen maila haundiko jokalaria, eta mota guztietako erremateak egiteko aukera eman zion. Partidua, zabalera intentzios botatako tantu polit batez bukatu zen.

Ubera II.ak, hau da Xabierrek, Ortizen (Mungia) kontra jokatu zuen. Mungiatar gazte honek, profesionalaren anaia, ez zuen maila hona eman eta Xabierrek pilotari indar gehiago eman ez zion irabazteko inongo aukerarik eman (18-3).

Bukatzeko, esan, faborito batzuk hasi direla jokatzeko. Hau da Matxain Usurbildarraren kasua, frontoira egiteko edo besteak baino lehenago hasi da lehian. Bere mailako jokalaria batean pentsatzekoa izango zen bezala izugarrizko jipoia eman zion Perezi (Berango), azkenean partidua 22-5eko emaitzaz amaitu zen.



Aitor Uberak lehenengo partidua irabazi egin zuen.

## ZELETA JATETXEA

IÑAKI GOROSTIZA

Eguneroko eta kartako menua  
San Roke 2 .Tel: 768151



## IRAMA

ELEKTRIZITATEA

INSTALAZIOAK ETA MANTENTZE LANAK  
24 ORDUKO ZERBITZUA MENSATEL: 900282828  
Abonatua 247262 Tel: 789057- 768025 Salvador 3

## LORENTZO AZKAZIBAR: Jalotzako, Elgetako, Mundu osoko eskultoria

Harrigarria benetan orduko sasoiaren, oiñ dala 64 urte jaio zan Lorentzo Jalotzan, gizon honek hartu eban biria. Ez zan ez joan, Eibarrera edo Bergarara taillarraren batera ofiziuua ikastera. Ofiziuua ikasi eban, baiña eskultore eta dibujante ofiziuua. Ba ei ekan umetan, eskolan, dibujatzeko eta taillatzeko afiziñua.

Gazterik itxi eban eskolia eta Elgeta; halata be, goguan daka eskolapian edo eliz-azpitan pelotan ebizela, ah zelako antxixiketaldixak eitten zittuen kuria etorrela eta, bisitxia ez eitte arren!

Eskolatik urten, eta Erosarbenian emon ei eban urte bete muebliak taillatzen. Ha ez zala bere gustokua konturatu eta Bergarara biria hartu ei eban, taillatzen eta dibujatzen ikasteko. Ez zittuan izan ez maisu txarrak: Okinak taillatzen erakutzi otzan; Simon Arrietak pintatzen. Sasoi honetakuak dira be, Beobide zumairrari, entzute haundiko eskultoria, eitte otzazen bisitxak.

Bergaran ikasi bihar zittuanak ikasitakuan, Bilbo aldera joatia erabagi eban. Han hurrengo lau urtiak "Bellas Artes" ikasten pasau zittuan. Ikasten eta biharra eitten, lapikua be zeozekin bete bihar zan eta!

Bilbon be, berak diñuanek, maisu aparta euki ein eban: Basterra eskultoria.

Haretzek urtietakuak die Bergarako S. Pedro elixan dauen "La Piedad" eskultoria eta Salamanca aldera bialdutako hiru figura erlijioso.

1958. urtian, ikastiok amaittuzat emon zittuanian, gaztia izan, ilusiñua, iñun sustarrrik



Lorentzo bere estudixuan.

botatzeko gogorik ez, abentura zalia, bihar aldetik be perspektiba hobiak ikusi, eta Ameriketara joatia pentzau eban. Pentzau eta jua. Ameriketara, Estatu Batuetan, New York-eko Bronx-en, Madril baino auzo haundixaua ei da, hamabi urte ein zittuan biharrian. Beste bi eta erdi Canadako muga inguruan.

Hamasei urtian eindako biharra ez zan badaezpadakua izan, Venezuelan, Puerto Rico-n, Estatu

Batuetan eta beste zenbait lekutan joan zan Lorentzo bere obrak lagatzen. Askotan ez bere gustua zalako, baina saldu ein bihar- saldu eta gero be, eindako biharra berana dala pentzaten dau esaten dabenez -.

Han lagatako biharren artian famatuenak "Monumento a Colón" eta Jhon Kennedy, Estatu Batuetako presidentia izandakuaren mau-soleuan dagoen "S. Juan Bautista" dira beste askoren tartian.

1974. urtian andria eta hiru seme-alabekin, bueltatzia erabagi eban.

Guk hemen Gasteizen ezagutu dugu, autulari aparta benetan. Estudixuan hartu gaitu, ondiok be biharrian dihardu eta daukan ilusiñua eta sasoi ikusita urte askuan halan jarraituko dau. Dana dala, bisitxia gustatzen ei jako, eta ipuin askoren artian, anonimatu gustokua dauela esan dosku.

Akaso egunen batian izango dugu Elgetan bere biharra eta bera, Lorentzo, ezagutzen ez dugunok behintzat, ezagutzeko aukeria.

Bixkor izan deilla!

A. Telleria

**OSTATU**  
**JATEKIA**

Gudarien Bide  
Tel: 76 80 23  
ELGETA

Eguneko menua 800 pta.  
Karta

**GORROTXATEGI**  
**HARATEGIA**

Andra Mari Plazan zure etxetik gertu.  
Tel: 76 81 72.



## Erreala eta Athletica batera.

Badira 18 urte partidu hau jokatu zela Pagatzako futbol zelaian. Joakin Atxukarro arbitro zorrotza izan zen. Baterenbat kalera ere bota baitzuen. Errealak 10 jokalarirekin hasi zuen partidua eta konturatu orduko galtzen zihoazen. Azken emaitza 5 eta 1ekoa izan zen Athletic-en alde. Bat baino gehiago lesionatu ziren eta baita ondorengo hilabeteetan errekuperatu ezinik egon ere, baina lagun arteko partidua izan zenez, afari eder batekin eman zioten amaiera bapateko ekintza honi.

Erretratu honetan kamilleroak ( "Tartufo" eta Tomas Beteta ) Ambulanzia gidaria (Patxi Bouzas ) eta andren masajista ( Kandido Bolinaga ) falta dira. Ekipo bien animatzailea Alberto Aranzeta izan zen.

Erretratuko izenak: **Tente:** Andres Sarasua (porteroa), **Tomas Arizmendiarieta**, **Jose Ramon Urizar**, Luis Alzuaran, **Jose Aranzabal**, **Julio Ibarluzea** (porteroa), **Jose Arrizabalaga**, **Migel Ojanguren** (ikurrinduna), **Jose Luis Irazabal**, **Elizabeth Arrizabalaga**, **Jose Mari Atxotegi**, Jabier Zabala, **Joakin Atxukarro** (arbitroa), **Juanito Unzetabarrenetxea**, Enrike Ibaibarriaga, **Anton Alberdi**, Alejandro Aranzeta.

**Behean ezkerretik hasita:** Pedro Mari Zabala, Anjel Basauri, **Jose Luis Gallastegi**, Patxi Aranzabal, **Jose Luis Alkorta**, Felix Irazabal, **J. Antonio Urizar**, J. Antonio Otxoa eta Luis Mari Irazabal.

**Aurreko hiru gazteak:** Haritz Gallastegi, Luis Antonio Alkorta, Josu Urizar.

Oharra: Negritaz dauden izenak **Athletikekoak** dira eta besteak Errealekoak.

*Estampaciones*


**Elgeta**

Estanpaketa orokorra,  
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,  
Serie handietan espezializatu.


# ELGETAK BEHAR DUENA



*udal* **abertzalea eta ezkertzalea**



**ELGETAKO HERRI BATASUNA**



ELGETA  
Buru-Batzarra

## 1995eko Maiatzak 28an **Udal Hauteskundeak**

- 1.- PATXI BASAURI ELCORO
  - 2.- MARIA JESUS LETE LASKURAIN
  - 3.- ANTONIO ITURRICASTILLO ASCASIBAR
  - 4.- JULIAN MARQUIEGUI AREITIO- AURTENA
  - 5.- LARRAITZ RETOLAZA ELCORO
  - 6.- JOSE MARIA UNCETABARRENACHEA ORMAECHEA
  - 7.- CARLOS FERNANDEZ GALLEGO
- ORDEZKOAK
- 8.- CONCEPCION IBARLUCEA ASCASIBAR
  - 9.- GORKA BOLINAGA ITURRICASTILLO
  - 10.- ANTONIA TELLERIA LAMARAIN

**ESPERIENTZIA, ETORKIZUNA**

POSTAZ BOTOA  
MAIATZAK 19 ARTE

INFORMAZIOA: 768028/768231



ELGETA  
Buru-Batzarra